

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

10/2025 Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea auzolan sistemaren bidez egindako jarduketak gauzatzeko tresnak eta norbera babesteko ekipoak eskuratzea finantzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile orokorrei, bai eta haien 2025erako deialdiari ere

Foru aldundiaren gobernu ekintzaren helburuetako bat lurralde oreka lortzea da. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak zenbait neurri ezarri ditu Arabako Lurralde Historikoan desberdintasun sozialak eta ekonomikoak murrizteko.

Neurri horien artean, Arabako Foru Aldundiak, horretarako antolatutako lankidetzaren bitartez, finantza laguntza eta laguntza teknikoa ematen du Arabako landa eremuko biztanleen ongizatea handitze aldera toki erakundeek sustatutako obrak egiteko.

Toki erakundeekiko lankidetzaren ildo horien artean dago Auzo Harremanak Sustatzeko Ekinmenen Programa. Programa horren bitartez, auzolan sistema tradizionalaren bidez egindako jarduketarako materialen erosketak finantzatzen da, hau da, herri onuraduneko biztanleen eskulanaren bidez egindako jarduketarako materiala erostea.

Laguntza lerro hori, hasiera batean, apirilaren 24ko 14/1997 Foru Arauak arautu zuen, eta, ondoren, ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak; ibilbide luzea izan du, eta emaitzak oso positiboak izan dira; izan ere, Arabako toki erakundearen artean, batez ere txikienen artean, onarpen handia duen lankidetzaren tresna izateaz gain, obra txikien bidez ondasun eta eraikin publikoak mantendu eta leheneratzea ahalbidetu du. Obra horiek, udalerriko biztanleek berek egin dituztenez, herrien kolektibitate sentimendua indartzen lagundu dute, eta, ondorioz, landa eremuko gizarte kohesioa indartzen.

Auzolan jarduketari dagokienez, Arabako Foru Aldundiak horrelako jarduketarako emandako laguntza handitzeko eskatu dute toki erakunde batzuek azken ekitaldian, eta eskatu dute laguntzak materialak erosteko ez ezik, lanak egiteko bitarteko operatiboak erosteko ere izan daitezela.

Eskaera horri erantzuteko, eta auzolanak babesteak Arabako landa gizartearentzat duen garrantzia kontuan hartuta, Arabako Lurralde Historikoaren 2025erako aurrekontua gauzateari buruzko abenduaren 17ko 18/2024 Foru Arauan "10203. G/459100/76800105 - Auzolanak egiteko tresnetarako dirulaguntza" partida jaso da, auzolanak egiteko tresnak erosteko laguntza lerro bat finantzatzeko.

Horretarako, beharrezkoa da laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onestea, dirulaguntzen jarduerarako foru araudian ezarritako printzipioei jarraikiz, bermatzeko betetzen direla Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako arauak eta baldintzak.

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 16. artikulua Gobernu Kontseiluari esleitzen dio Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen eremuan dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onesteko eskumena.

Foru dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude.

Foru dekretua egiteko, kontuan eduki dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) oinarri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren edukia ere. Era berean, kontuan hartu da Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egindako txostenean jasotako oharra.

Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da; izan ere, behar bezala justifikatuta dago bai antolamendu juridikoan sartzea, bai ematen duen organoa gaitzea. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako legez ezarritako epeetan. Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatu den arauketak, bere izaera dela-eta, ez dakar zama administratibo osagarririk edo alferrikakorik, ezta baliabide publikoen kontsumo handiagorik ere. Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dago kienez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Horrenbestez, nahitaezko txostenak aztertu dira, eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren toki erakundeentzako norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak, auzolan sistemaren bidez egindako jarduketak gauzatzeko tresnen eta norbera babesteko ekipoen erosketa finantzatzeko. Aipatutako oinarriak dekretu honen I. eranskinean jaso dira.

Bigarrena. Onestea Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren toki erakundeentzako norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko deialdia, auzolan sistemaren bidez egindako jarduketak gauzatzeko tresnen eta norbera babesteko ekipoen erosketa finantzatzeko. Deialdia dekretu honen II. eranskinean jaso da.

Hirugarrena. Arabako Lurralde Historikoaren 2025eko ekitaldiko aurrekontuko "10203. G/459100/76800105 - Auzolanak egiteko tresnetarako dirulaguntza" partidaren 50.000,00 euroko esleipenaren kontura emango dira dirulaguntzak.

Laugarrena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea diruz lagundutako jarduketak izapidetzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren egintza eta xedapen guztiak eman ditzan.

Bosgarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA

I. ERANSKINA

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren toki erakundeentzako norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak, auzolan sistemaren bidez egindako jarduketak gauzatzeko tresnen eta norbera babesteko ekipoen erosketa finantzatzeko

1. Xedea eta aplikazio eremua

1.1- Auzolan sistemaren bidez egindako jarduketak gauzatzeko tresnen eta norbera babesteko ekipoen erosketa finantzatzeko toki erakundeentzako norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak ezartzen ditu dekretu honek.

Auzolantzat hartuko dira toki erakundeko biztanleen eskulanarekin egindako jarduketak.

1.2- Hauek dira laguntza lerro honen kontura finantza daitezkeen objektuak:

1. Tresnak: auzolan sistemaren bidez egindako jarduketetan erabiltzen diren tresnak.

2. Norbera babesteko ekipamenduak: auzolanak egiten diren tokiko erakundeko biztanleentzako banakako segurtasun elementuak. Ekipamendu horrek kontuan izan beharko ditu emakumeen eta gizonen premia partikularrak, bai eta premia espezifikoak dituzten kolektiboetako beste pertsona batzuenak ere.

1.3- Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 29.4 artikulua aplikatuz, ondasun inbentariagarriak eskuratuz gero, erakunde onuradunak bi urtez erabili beharko ditu ondasun horiek dirulaguntza eman zen helburu zehatzerako, salbu eta deialdian epe luzeagoa ezartzen bada.

1.4- Oinarri arautzaile hauetan xedatutakoaren ondorioetarako, laguntza lerro honen babesean egindako eskaerak diruz laguntzeko modukotzat hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

1. Laguntza hauek eskatzen dituzten toki erakundeek erositako elementuak auzolan sistemaren bidez egindako jarduketak gauzatzeko erabili behar dira.

2. Eskaeran aurkezten den aurrekontuak ezin du gainditu dagokion deialdian adierazitako zenbatekoa.

3. Toki erakundeek auzolana arautzeko ordenantza onetsita eta indarrean izan beharko dute deialdi bakoitzean eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik.

4. Toki erakundeek aseguru bat izan behar dute kontratatuta, deialdi bakoitzeko eskaera formalizatu aurretik, auzolanean parte hartuko dutenen istripu arriskuak eta istripuaren ondorioz gerta daitezkeenak estaltzeko.

5. Dagokion deialdian eska daitezkeen beste edozein.

2. Printzipio orokorrak

2.1- Arabako toki erakundeetan auzo harremanak sustatzeko eta obra txikiak gauzatzeko ekimenetarako laguntza programak arautzen dituen 2013ko ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren 2. artikuluan aipatzen diren printzipioekin bat etorritik kudeatuko dira ematen diren dirulaguntzak.

Era berean, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan dirulaguntzen jarduerarako zehaztutako printzipio inspiratzaileak aplikatuko dira.

2.2- Dirulaguntza hauen onuradunak diren toki erakundeek Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan jasotako printzipio orokorren arabera bideratu behar dituzte beren jarduketak, eta lege horretan esleitutako eskumenei eta eginkizunari arabera dagozkien betebeharrak bete. Zehazki,

diruz lagundutako jarduera gauzatzeko administrazio kontratuak egiten direnean, aipatutako legegintzako dekretuaren 22. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da. Ondorioz, kontratua betetzeko baldintzen artean adjudikaziodunaren betebeharrak hau ezarri behar da: prestazioa egitean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharra, kontratuen legeriarekin bat etorritik, baldin eta organo eskudunak ezarri badu kontratazioan neurri hori aplikatu behar dela.

3. Erakunde onuradunak

3.1- Erakunde onuradunak hartuko dira 21/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan adierazitakoak, hartan ezarritako baldintzetan, baldin eta oinarri arautzaile hauetan eta deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, bai eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan ezarritakoak ere.

3.2- Ezin izango dira erakunde onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zehapena jaso dutenak, ez eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotako kasuetan daudenak ere.

4. Aurrekontuko zuzkidura eta dirulaguntzen zenbatekoa

4.1- Deialdi bakoitzerako Lurralde Orokorraren eta Lurralde Antolamenduaren Foru Sailaren aurrekontuan laguntza lerro honetarako gaitutako aurrekontu partidei egotziko zaizkie dirulaguntzak.

4.2- Urteko deialdietan zehaztuko da eskaera bakoitzeko eman daitekeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa. Zenbateko horrek ezingo du inola ere gaitutako laguntza programa hau finantzatzeko aurrekontu zuzkiduraren ehuneko 5.

4.3- Eman beharreko dirulaguntza diruz lagun daitekeen gastuaren ehuneko 100era iritsi daiteke, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 29. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Finantza daitekeen objektu mota bakoitzerako diruz lagun daitekeen gastua, dagokion urteko deialdian beste muga batzuk ezarri ezean, honako hauetara iritsi ahal izango da:

1. Tresnak (1. oinarriko 1.2.1 atala): deialdi bakoitzean dirulaguntzaren gehieneko zenbateko gisa ezarritako zenbatekoaren ehuneko 100era arte.

2. Norbera babesteko ekipamenduak (1. oinarriko 1.2.2 atala): deialdi bakoitzean dirulaguntzaren gehieneko zenbateko gisa ezarritako zenbatekoaren ehuneko 40ra arte.

4.4- Diruz lagundu daitekeen gastua eraginkorra izan dadin, instrukzio organoari atxikitako zerbitzu teknikoek arrazionaltasun eta proportzionaltasun irizpideak proposatu ahal izango dituzte diruz lagundu daitezkeen elementuak eskuratzeko.

4.5- Laguntza lerro honi dagokion urteko deialdian sar daitezkeen eskaera guztiei erantzun ondoren aurrekontu partidak soberakinak badu, Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenen Programaren deialdiaren babesean eskatutako eta aurrekontu mugagatik diruz lagundu gabe geratutako jarduketak finantzatzeko erabili ahal izango da, saldoa agortu arte, eta kide anitzeko organoak laguntza horietarako ebazpen proposamenean ezarritako lehentasun ordena errespetatuz.

4.6- Oinarri honetako 4.5 apartatuan adierazitakoa bete ondoren aurrekontu soberakinak badago oraindik, soberakin hori Obra Txikiak Gauzatzeko Programaren urteko deialdiaren babesean eskatutako eta aurrekontu mugagatik diruz lagundu gabe geratutako jarduketak finantzatzeko erabili ahal izango da, saldoa agortu arte, eta kide anitzeko organoak laguntza horietarako ebazpen-proposamenean ezarritako lehentasun ordena errespetatuz.

5. Eskaerak aurkezteko modua eta epea

5.1- Eskaerak aurkezteko epea deialdi bakoitzean ezartzen dena izango da, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

5.2- Deialdi bakoitzean zehaztuko da eskaerak nola aurkeztu behar diren.

5.3- Laguntza hauen onuradun izan nahi duten toki erakundeek deialdi bakoitzean eskaera bat bakarrik egin ahal izango dute laguntza programaren kontura.

5.4- Eskaera bakoitzak honako informazio hau jaso beharko du gutxienez:

1. Erakunde eskatzailea.

2. Eskatutako erosketaren zenbateko osoa (BEZ banakatuta).

3. Toki erakunde onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, auzolanak arautzen dituen ordenantza behar bezala onetsita eta indarrean dagoela adierazten duena. Ordenantza arautzailearen testu osoa ALHAOn argitaratu zen eguna eta aldizkariaren zenbakia adierazi behar dira.

4. Toki erakunde onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, dagokion ekitaldiko auzolanetan parte hartzen dutenentzako istripu arriskuak eta istripuen ondorioz gerta daitezkeenak estaltzeko aseguru poliza bat kontratatuta duela adierazten duena.

5. Toki erakunde onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena, erositako elementuak auzolan sistemaren bidez egindako jarduketak gauzatzeko erabiliko direla adierazten duena.

Eskaera orriarekin batera, eskatutako elementuei buruzko informazioa lortzeko behar bezain zehatza den aurrekontua bidali behar da.

Eskatutako informazioa edo eskaera egiteko eskatzen diren dokumentuen zerrenda aldatu egin daiteke deialdi batetik bestera.

5.5- Nolanahi ere, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

5.6- Aurkeztutako eskaeretan akatsak badaude edo eskaerak osorik ez badaude, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak haiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak eransteke errekerimendua egingo die erakunde interesdunei. Horretarako, hamar egun balioduneko epea izango dute, eta epe hori igarotakoan akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin dela ulertuko da, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoarekin.

6. Baztertzeko irizpideak

Eskaerak baztergarriak izango dira honako egoera hauetan:

1. Eskaerarekin batera bidalitako aurrekontuak gainditu egiten badu dagokion deialdian ezarritako zenbatekoa, "Xedea eta aplikazio eremua" izeneko lehenengo oinarriko 1.4.2 apartatuan ezarritakoaren arabera.

2. Aurreko deialdietan programa honen dirulaguntza jaso, eta toki erakundeak uko egin badio edo ez badu erosketak gauzatu.

3. Dagokion deialdiko eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen egin badira erosketak.

4. Oinarrietan edo deialdian finkatutako baldintzak betetzen ez badira.

7. Hautaketa irizpideak

7.1- Norgehiagoka prozeduraren arabera, diruz lagun daitezkeen eskaerak hautaketa irizpide hauen arabera kalifikatuko dira:

1. Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenen Programan, deialdiaren aurreko hiru ekitaldietan, tresnen eta norbera babesteko ekipamenduen erosketa finantzatzeko egindako eskaera diruz lagungarrien kopurua, baremo honen arabera:

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN ESKAEREN KOPURUA	PUNTUAK
0	0
1	1
2	2
3	3

2. Deialdiaren aurreko bi ekitaldietan tresnak eta norbera babesteko ekipoak erosteko laguntza programaren kontura emandako dirulaguntzen kopurua, baremo honen arabera:

DIRULAGUNTZEN KOPURUA		PUNTUAK
DEIALDIAREN AURRE-AURREKO EKITALDIA	DEIALDIAREN AURREKO BIGARREN EKITALDIA	
1	1	0
1	0	1
0	1	2
0	0	3

Aipaturiko bi irizpide horiek erabilita lortutako puntuen batura, handienetik txikienera, izango da kontuan laguntza jaso dezaketan erostetak lehenesteko.

7.2- Eskaeren puntuazioan berdinketa gertatzen bada, lehenetsuna emango zaie zuzenbidezko biztanleria txikiagoa duten toki erakunde eskatzaileek aurkeztutako eskaerei, deialdi bakoitza argitaratzen den aurrekontu ekitaldiari dagokion Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren (FOFEL) banaketarako erabilitako datuen arabera.

7.3- Arau hori aplikatu ondoren berdinketak bere horretan badirau, lehenetsuna emango zaie deialdiaren aurreko ekitaldiko abenduaren 31n onetsitako azken kontuen arabera finantza baliabide gutxien dituen toki erakundearen eskaerei. Kontzejuen kasuan, kutxako izakinak hartuko dira kontuan, eta udalen kasuan, likidatutako azken ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

8. Deialdiaren ebazpena

8.1- Laguntzak lortutako puntuazioaren arabera esleituiko dira (handienetik txikienera ordenatuta), zazpigarren oinarrian ("Hautaketa irizpideak") ezarritako irizpideei jarraikiz, deialdiaren saldoa agortu arte.

8.2- Eskaerak jaso ondoren, prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena duen organoak eskaerak aztertuko ditu, dagokion instrukzio txostena emateko. Eskaerak zazpigarren oinarrian ezarritako balorazio irizpide eta lehenetsunen arabera ebaluatuko dira.

Prozedura honen instrukzioa egiteko organo eskuduna Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzua izango da, salbu eta laguntzen deialdietan beste unitate organiko bat izendatzen bada.

Aipatutako txostena behar bezala arrazoitu beharko da, eta emakida proposamena egiteko eskumena duen kide anitzeko organoari helaraziko zaio.

8.3- Instrukzio txostena ikusi ondoren, kide anitzeko organoak ebazpen proposamena egingo du, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Kide anitzeko organo hori honako hauek osatuko dute, betiere dagokion deialdian bestelakorik ezartzen ez bada: Lurralde Orekaren zuzendariak (batzordeburua izango da), prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena duen zerbitzuari atxikitako pertsonen arteko batzordekide batek edo gehiagok, eta unitate horretako zerbitzuburuak edo hark eskuordetzen duenak (idazkaria izango da).

8.4- Gastuak baimendu, xedatu eta agintzeko eskumena duen organoak ebatziko du dirulaguntza ematea edo ukatzea, deialdian ezarritako epean. Deialdian eperik zehaztu ez bada, organo eskudunak gehienez ere sei hilabeteko epean emango du ebazpena, dagokion deialdia argitaratzen denetik zenbatuta. Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik eman ez bada, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertu beharko dute erakunde eskatzaileek.

8.5- Instrukzio txostenean jasotako aginduak eta baldintzak nahitaez bete beharrekoak dira, eta dirulaguntza jasotzeko baldintza izango dira, deialdia ebazteko eskumena duen organoak onetsi baditu.

8.6- Ez da entzunaldi izapiderik egingo, ebaztean ez direlako kontuan hartuko erakunde eskatzaileek aurkeztutakoez bestelako egitate eta dokumentuak.

8.7- Ebazpenean, dirulaguntza jasoko duten erakunde eskatzaileen zerrenda jasotzeaz gain, gainerako eskaerak ezetsi direla ere adierazi beharko da berariaz.

8.8- Emandako dirulaguntza ez da inola ere handituko.

8.9- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duen bezala jakinarazi behar zaie dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eskatzaileei.

8.10- Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita; dena dela, aurrez 44. artikuluko aukerako errekerimendua aurkez daiteke.

9. Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek betebeharrak

Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Dirulaguntza jasotzeko oinarritzat hartutako jarduera deialdian ezarritako epean gauzatu behar dute.

2. Emandako dirulaguntza osorik aplikatu behar diote dirulaguntza ematea eragin zuen jarduerari.

3. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskatutako informazio guztia eman behar dute.

4. Kontratazio publikoaren arloko legerian eta, bereziki, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete behar dute.

5. Xede bererako jasotzen dituzten bestelako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide publiko zein pribatu guztien berri eman behar dute.

6. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretan gertatzen diren aldaketa guztiak jakinarazi behar dituzte.

7. Oinarri arautzaileetan eta laguntza hauen deialdian ezarritako betekizunak eta baldintzak bete behar dituzte.

10. Gauzatzeko epea

Gauzatzeko epea urteko deialdietan ezarriko da. Epea ezin izango da amaitu deialdiari dagokion ekitaldiko abenduaren 31 baino geroago.

11. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea

11.1- Erakunde onuradun bakoitzaren aldeko ordainketa izendunak egingo dira.

11.2- Dirulaguntza ordaintzeko, toki erakundeak justifikatu beharko du dirulaguntzaren xede den jarduera dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan jasotakoaren arabera egin dela. Horretarako, erakundeak honako hauek bidali beharko ditu:

- Gastua justifikatzeko agiriak (fakturak), erositako elementuei buruzko informazioa lortzeko behar beste xehatuta. Fakturak behar bezala onetsi beharko ditu erakunde onuradunak.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko bestelako diru sarrera edo dirulaguntza batzuk jaso badira, haien xehetasuna, zenbatekoa eta nork emana den zehaztuta.
- Erositako elementuen argazkiak.

Kasuan kasuko deialdian ezarriko da dokumentu horiek aurkezteko gehieneko epea. Ordainketa egiteko eskatzen den dokumentazioa eta informazioa ezberdina izan daiteke deialdi batetik bestera.

11.3- Dagokion deialdiko aurrekontuetarako lehenengo oinarriko ("Xedea eta aplikazio eremua") 1.4.2 apartatua ezarritako zenbatekoa gainditzen duten fakturak bidali ahal izango dira. Hala eginez gero, dirulaguntza emateko ebazpenean jasotakoa hartuko da diruz lagun daitekeen gehieneko gastutzat.

11.4- Emandako dirulaguntza ez da inola ere handituko. Alabaina, berrikusi eta gutxitu egin ahal izango da, benetan egindako erosketaren eta aurkeztutako fakturen arabera.

11.5- Ez dira aintzat hartuko dirulaguntza emateko ebazpenean dirulaguntza ezartzeko oinarritzat aurkeztutako aurrekontuan jasota ez dauden elementu fakturatuak.

11.6- Fakturatuak elementuen modeloa, kopurua eta kostua beste bat izatea onartuko da, baldin eta aurrekontuan diruz laguntzeko modukoaren artean jasota badaude. Aldaketa horiek ez dute ekarriko inola ere hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa handitzea.

11.7- Laguntzaren onuradunek egindako ordainketen egiaztagirak bidali beharko dituzte dirulaguntzaren xede den jarduera amaitu ondoren; horretarako, bi hilabeteko epea izango dute, dirulaguntza ordaintzen den egunetik aurrera.

12. Dirulaguntzen konkurrentzia eta bateragarritasuna

Emandako laguntzak bateragarriak dira helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntza, diru sarrera edo baliabiderek, betiere gauzatu beharreko jardueraren kostua gainditzen ez badute.

13. Oinarriak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea

13.1- Honako hauetan jasotako kasuetan dirulaguntza itzuli beharko da: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

13.2- Onetsitako dirulaguntzaren gaintik jasotako zenbatekoak itzultzea zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da, eta Aurrekontuen urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera kobratuko da.

13.3-Toki erakundeek Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean (FOFEL) dituzten partaidetzak berariaz geratuko dira balizko itzulketen eraginpean.

13.4- Honako irizpide hauek ezartzen dira dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen ez diren kasuak mailakatzeko:

1. Erosketa ezarritako epean egiten ez bada, esleitutako dirulaguntza guztia galduko da.
2. Erosketaren zati bat egiten bada ezarritako epean, erosi ez denari dagokion dirulaguntza zatia galduko da.
3. Ez bada erosketa justifikatzen edo ez bada 11. apartatuan ezartzen denaren arabera behar bezala justifikatzen, esleitu den eta justifikatu ez den dirulaguntza zatia galduko da.

14. Egiaztapena

14.1- Lurralde Oreka- eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuak deialdiak gauzatzeko egokitzat jotzen dituen ebazpenak emango ditu, dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta ekintzak abiarazi ahal izango ditu erakunde onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

14.2- Horretarako, onuradunak behartuta daude gauzatzeko jarduketari buruz Lurralde Oreka- eta Lurralde Antolamenduaren Sailak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak ematea. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Euskal Epaitegiak edo eskumena duten beste erakunde batzuek eskatzen dizkieten argibide guztiak ere eman beharko dituzte.

15. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza Aldundiko Lurralde Oreka- eta Lurralde Antolamenduaren Sailak ebatziko du.

16. Errekurtsoak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen dituen kasuetan eta bertan finkatzen den moduan aurkaratu ahal izango dira oinarri hauek eta beren ondoriozko administrazio egintza guztiak.

17. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan xedatzen ez dena hauek arautuko dute: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Aurrekontuen urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorra; indarrean dagoen aurrekontu antolamenduari buruzko foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

II. ERANSKINA

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren toki erakundeentzako norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko 2025eko deialdia, auzolan sistemaren bidez egindako jarduketak gauzatzeko tresnen eta norbera babesteko ekipoen erosketa finantzatzeko

1. Deialdiaren xedea

1.1- Deialdi honen xedea da eskakizunak, betebeharrak eta prozedurak ezartzea, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren toki erakundeentzako norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko, auzolan sistemaren bidez egindako jarduketak gauzatzeko tresnen eta norbera babesteko ekipoen erosketa finantzatzeko.

1.2- Deialdia arautzen duten oinarriak foru dekretu honen lehenengo puntuan I. eranskin gisa onartutakoak dira. Deialdi honen oinarri orokorrak ALHAOn argitaratuko dira deialdi honekin batera.

1.3- Deialdi honen ondorioetarako, "Xedea eta aplikazio eremua" izeneko lehenengo oinarrian adierazitako objektuak finantzatu ahal izango dira, oinarri horretan ezarritako baldintzetan.

1.4- Ondasun inbentariagarriak eskuratzeko lehenengo oinarriko 1.3 apartatuan aipatutako epeari dagokionez, gutxienez bost urtez erabili beharko dira dirulaguntza eman zen helburu zehatzerako.

1.5- Lehenengo oinarriaren 1.4.2 apartatuan ezarritakoaren arabera, eskaeran aurkeztutako aurrekontua ezin da 1.500,00 eurotik gorakoa izan (BEZa barne).

2. Erakunde onuradunen betekizunak

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte "Erakunde onuradunak" izeneko hirugarren oinarrian adierazitako toki erakundeek.

3. Dirulaguntzaren zuzkidura eta zenbatekoa

3.1- Deialdi honetako dirulaguntza programarako hasierako zuzkidura 50.000,00 euro da, Arabako Lurralde Historikoaren 2025erako aurrekontuko "10203. G/459100/76800105 Auzolanak egiteko tresnetarako dirulaguntza" partidaren kontura.

3.2- Deialdi honetarako eskaerako gehieneko dirulaguntza 1.500,00 eurok izango da (BEZa barne), "Aurrekontuko zuzkidura eta dirulaguntzen zenbatekoa" izeneko laugarren oinarriko 4.2 apartatuan jasotakoaren arabera.

3.3- Diruz lagundu daitekeen gastuaren ehuneko 100era irits daiteke dirulaguntza, laugarren oinarriko 4.3 apartatuan ezarritakoaren arabera.

Era berean, emandako dirulaguntza baten kontura finantza daitekeen objektu mota bakoitzerako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak oinarrien 4.3 apartatuan ezarritakoak dira: 1.500 euro (BEZa barne) tresnetarako eta 600,00 euro (BEZa barne) norbera babesteko ekipamenduetarako.

4. Eskaerak aurkezteko modua eta epea

4.1- Eskaerak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2025eko maiatzaren 15eko 23:59an amaituko da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoa betez, eskaerak berariazko izapidearen bidez aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoan:

<https://egoitza.araba.eus/es/-/subvenciones-adquisicion-herramientas-para-veredas>.

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/auzolanetarako-tresnak-erosteko-dirulaguntzak>.

4.2- Eskaerarekin batera, eskatutako elementuei buruzko informazioa lortzeko behar bezain zehatza den aurrekontua aurkeztu behar da, "Eskaerak aurkezteko modua eta epea" izeneko bosgarren oinarriko 5.4 apartatuan ezarritakoaren arabera, oinarri bereko 5.5 apartatuan adierazitakoa alde batera utzi gabe.

4.3- Aurkeztutako eskaeretan akatsak badaude edo eskaerak osorik ez badaude, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak haiek zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak eransteke errekerimendua egingo die erakunde interesdunei. Horretarako, hamar egun balioduneko epea izango dute, eta epe hori igarotakoan akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin dela ulertuko da, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoarekin.

4.4-Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan eta hura arautzen duten oinarrietan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

5. Deialdiaren ebazpena

5.1- Aztertze modukoak diren eskaerak "Hautaketa irizpideak" izeneko zazpigarren oinarrian ezarritako arauen arabera kalifikatuko dira.

5.2- "Deialdiaren ebazpena" izeneko zortzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera ebaztuko da deialdia.

5.3- Diruz lagundutako jardueraren zabalkundea eta publizitatea, euskarria edozein dela ere (liburuxkak, kartelak, argitalpenak...), Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da.

5.4- Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena egiteko organo eskudunak " Deialdiaren ebazpena" izeneko zortzigarren oinarrian adierazitakoak izango dira.

5.5- Ebazteko muga eguna 2025eko uztailaren 15a izango da, eta jakinarazpena aipatutako oinarriko 8.9 apartatuan ezarritakoa betez egingo da.

6. Dirulaguntza jasotzen duten erakundeen betebeharrak

Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeen betebeharrak "Dirulaguntza jasotzen duten erakundeen betebeharrak" izeneko bederatzigarren oinarrian jasotakoak izango dira, bai eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan dirulaguntzen jarduerarako ezarritakoak ere.

7. Gauzatzeko epea

Dirulaguntzaren xede den erosketa erabat eginda egon beharko da 2025eko irailaren 30a baino lehen.

8. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea

Emandako dirulaguntzen ordainketa "Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea" izeneko hamaikagarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da.

Dirulaguntza ordaintzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezteko aipatutako oinarriaren 11.2 apartatuan aipatzen den muga eguna 2025eko irailaren 30a izango da.

Dirulaguntzen justifikazioak "Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea" izeneko hamaikagarren oinarrian ezarritakoa bete beharko du.

9. Dirulaguntzen konkurrentzia eta bateragarritasuna

"Dirulaguntzen konkurrentzia eta bateragarritasuna" izeneko hamabigarren oinarriak ezarritakoaren arabera, emandako laguntzak bateragarriak dira helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntza, diru sarrera edo baliabiderek, betiere gauzatu beharreko jardueraren kostua gainditzen ez badute.

10. Dirulaguntza galtzea

Oinarriak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea “Oinarriak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea” izeneko hamahirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da.

11. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

12. Azken klausulak

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko dute, baita aplikagarriak diren gainerako arauak ere.